

## ***Izen ttipiak euskaraz (Onomasticon Vasconiae 26. Egilea: Patxi Salaberri)***

### **Aurkezpena**

Durango, 2009-VI-04

*Andres Iñigo*

Joan den azaroan egin genuen ikastaroan Euskaltzaindiak Onomastika alorrean egindako lanen ikuspegi orokorra azaltzen saiatu nintzen, bai antroponimian (pertsone izen, deitura, eta abarretan), bai toponimian (toponimia nagusia, txikia, exonimia, eta abarretan). Lan hauetaz egindako zenbait argitalpen ere aipatu nituen. Horien artean, *Onomasticon Vasconiae* bilduma.

Gaurko ekitaldi hau bilduma horren 26. alea aurkezteko aprobetxatu nahi izan dugu: *Izen ttipiak euskaraz*. Egilea Patxi Salaberri Zaratiegi dugu, azkeneko 22 urte hauetan Onomastika batzordeko kidea eta 2005az geroztik euskaltzain osoa. Gainera, Patxi Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskal filologiako katedraduna eta Filologia eta Hizkuntza saileko zuzendaria da, baita ere Nafarroako Príncipe de Viana erakundearen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren zuzendaria.

Arestian aipatu dudana bezala, Onomastika alorrak atal anitz ditu eta erraten ahal dugu Patxik horietan denetan lan ugari eta sakonak egin dituela. Bertzeak bertze, liburu hauek argitaratu ditu:

- *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez.*
- *Nafarroa Behereko herrien izenak: lekukotasunak eta etimologiak.*
- *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona/Iruña eta Artaxoa. Euskal toponimia*, biak Jimeno Juríorekin batera.
- *Euskal deiturategia: Patronimia*
- Euskaltzaindiaren *Ponte izendegiaren* erredaktorea, Mikel Gorrotxategirekin batera.
- *Biraoak Nafarroan*, Juan Joxe Zubirirekin batera
- *Luzaideko euskararen hiztegia*, Pello Kaminorekin batera

Halaber, artikulu sakon ugari argitaratu ditu aldizkari espezializatuetan.

Gaur aurkezten dugun liburu hau euskal antroponimiaren atal berezi eta bitxia da: izen ttipiak edo hipokoristikoak.

Egia da izen ttipiak (zenbait izen ttipi, behintzat) ezagunak egiten zaizkigula, bai testuetan aurkitzen ditugulako, bai euskal gizarteak sortzeko eta erabiltzeko joera handia izan duelako eta egun ere baduelako. Baina, guk dakigula, orain arte ez da izen horien inguruko bilketa eta azterketa sistematikorik egin. Eta, ezbaierik gabe egiaztatzen ahal dugu, Patxik ohi duen bezala, lan honetan ere bilketa zehatza eta azterketa sakona egin duela. Hortaz, eskerrik asko eta zorionak Patxiri.

Orain hitza emanen diot egin duen lanaren ezaugarriak berak azal ditzan.